



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2005-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Foru Aldundiaren eta bere administrazio instituzionalaren 2005eko ekitaldiaren ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

HKEEk egindako fiskalizazioak legezko eta kontularitzako alderdiak eta finantza egoeraren analisisa barne hartzen ditu.

Erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du Arabako Foru Aldundiak 2005eko ekitaldian legezkoatasuna betetzeari dagokionez, baina iritzi orokor honekiko hainbat salbuespen azaldu ditu.

Aurrekontuaren kudeaketaren barruan, erakunde fiskalizatzaileak azpimarratu du okerbidez luzatu direla hasierako hainbat kreditu eta diru-laguntza; langileen alorrari dagokionez esaten da AFAk ez dituela zerga aitortenetan langileei ordaindutako gauzako hainbat ordainsari barne hartu, ez eta goi kargudunei kargua utzi ondoren ordaindutako ordainsariak ere.

Administrazio kontratazioari dagokionez, txostenaren iritzira telefonia finkoaren kontratazioak ez ditu publizitate eta lehia printzipioak gorde. Bestalde, zaintza-obra batzuk, lanei berehalakotasunez ekiteko enpresaren gaitasunaren arabera esleitu zirenak, atzerapenez hasi zituzten.

Beste salbuespen batzuek sozietate publiko bati bi industri pabiloi saldu izana eta bi kirol erakunderi diru-laguntza zuzenak eman izana dute aipagai.

AFAk aurkeztutako kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du, horien gaineko salbuespenik batere adierazi gabe. Iritzi bereko azaldu da Erakunde Autonomoek legea bete eta kontuak aurkezteari dagokionez.



Sozietateei dagokienez, legea betetzeari buruzko iritzia aldekoa da, baina izan dira hainbat akats, hala nola, aurrekontuetan hurrengo ekitaldietarako hartutako konpromisoak ez barne hartu izana eta langileen kontratazioari buruzko zenbait, eta ondasun eta zerbitzuak erosteko zenbait kontraturekin lotutako beste batzuk, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde gabe izapidetu direlako.

Sozietate Publikoen kontuen gaineko iritzia ere aldekoa da; badira, ordea, hainbat akats HKEEren iritziaren arabera, Kontu Orokorrak ez ditu Laudioko Elkartegia S.A. eta Asparreneko Elkartegia, S.A. sozietateak barne hartu, zeinetan AFaren partaidetza gehiengoa den zeharka Araba Garapen Agentzia, SAren bitartez.

Berebat, Epaitegiak hainbat gomendio egin ditu honako alderdi hauen gainean: aurrekontu eta kontularitza, sarrera fiskalen kudeaketa, ondasun eta zerbitzuen kontratazioa, diru-laguntzen emakida eta langileen kudeaketa.

Amaitzeko esan behar da finantzaren analisisian, eragiketa arrunten aurrekontuzko saldo kontsolidatuak –aztergai izan den 2002-2005 aldian- nasaitasunez finantzatu dituela kapitalezko eragiketak.